



2017KO APIRILAREN 26AN BATZORDE IRAUNKORRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2017ko apirilaren 26an, 18:40etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZORDEAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IRURAKO UDALA (%2,73): Jesus Maria Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasqueta
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
VILLABONAKO UDALA (9,61): Eneko Urdangarin Eizagirre
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ALEGIAKO UDALA (%2,85)
ASTEASUKO UDALA (%2,49)
BERROBIKO UDALA (%0,93)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2017ko martxoaren 13ko Batzorde Iraunkorraren Akta onartzea.**
- 2. Papera/kartoiaren salmentaren kontratazio prozedura: Baldintza orri tekniko eta administratiboen onespren proposamena.**
- 3. Hondakin arriskutsuen bilketarako etxolen hornidura kontratazio prozedura: Baldintza orri tekniko eta administratiboen onespren proposamena.**
- 4. Galde-erreguak**

Mankomunitateko Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede ekintzari, Gemma Eceiza Mankomunitateko Teknikariraren aurrean.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2017ko martxoaren 13ko Batzorde Iraunkorraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Papera/kartoiaren salmentaren kontratazio prozedura: Baldintza orri tekniko eta administratiboan onespenez proposamena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Edukiontzien bitartez edo atez ateko bilketa sisteman kuboen bitartez jasotzen dugun papera eta kartoiaren salmenta, eta baita ere garbiguneetan edo industrigunean eta komertzioetan jasotzen dugun kartoiaren salmentaren kontratazio prozedura.

Material hori normalean zuzenean birziklatu dezaketen enpresei saltzen da. Erreferentzi bezala, Aspapel, papera eta kartoiaren elkarte bat, erabiltzen da. Bere prezioak, bai papera eta bai kartoiarenak, hilabetero boletin batean publikatzen ditu eta horren arabera enpresak beren eskaintzak egiten dituzte.

Kontratuak bi urtetako iraupena izango du eta beste bi urtez luzatu ahal izango da. Prozedura irekia, subastarena, izango da eta kasu honetan ez dago prezioa berrikusterik. Esleipen irizpideak, bakarrik ekonomikoak dira, subasta bat bezala kontsideratzen delako.

Kontratazio mahaian, Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Kontuhartzailea eta Zerbitzu Teknikoa egongo dira.

Joan den urtean, 2016an, salmenta honen bitartez, Mankomunitateak, bere sarrerako aurrekontuetan edo partidetan, 353.000 euro jaso zituen.”

Lehendakariak: “Aurrekoa orain dela zenbat urte egin zen?”

Teknikariak: “Orain dela 4 urte izango zen. Hemen, ez daude enpresa asko honetan ibiltzen direnak. Saica eta Arregi dira hemen gertukoak. Ez zaigu komeni ezta ere, oso urruti egotea Mankomunitatetik, zeren eta, guk garraiatu behar dugu paper eta kartoi hori, instalazio horietara.”

Hala, kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea proposatzen da, prozedura martxan jartzeko. Era berean proposatzen da prozedura honetan hemendik aurrera hartu beharreko erabakietarako Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea.

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateak papera eta kartoiaren salmentaren kontratazio eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez, arautu behar duten espedientea eta Baldintza Partikularren eta Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.-Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Pleguak jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera.

HIRUGARRENA.-Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea papera eta kartoiaren salmentaren kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

3. Hondakin arriskutsuen bilketarako etxolen hornidura kontratazio prozedura: Baldintza orri tekniko eta administratiboen onespun proposamena.

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz: “Joan den urtean etxeko hondakin arriskutsuen bilketarako etxola batzuen hornidura kontratatu zen eta aurten ere gauza bera egitea proposatzen da, hondakin arriskutsuen bilketarako hiru etxolen hornidura kontratatzea.

Etxola bat, Anoetako Udalerrirako izango litzateke, zeren eta, joan zen urtean, jarri gabe gelditu zen eta aurtengo aurrekontuetan kontutan hartu da hori. Beste biak, hasiera batean behintzat, Tolosa eta Andoaingo etxolak ordezkatzeko dira, zeren eta etxola horiek, gaur egungo olio bilketa zerbitzuan, hobekuntza bezala daude sartuta, hau da, ez dira gureak. Kontratu hori aurten amaituko da eta, kontratu berrirako behintzat, komeni dela uste dugu, bi etxola horiek ordezkatuta izatea, lehiaketan, nolabait, gure medioak egon daitezten eta edozeinek egin ahal izateko horko bilketa.

Hiru etxola hauen hornidura kontratuaren zenbatekoa 53.996,25 eurokoa da, BEZa barne, eta prozedura ireki bidez izapidetuko da espedientea. Proposamen ekonomikoa 51 punturekin baloratzen da, hornidura epea 10 punturekin eta proposamen teknikoa 39 punturekin.”

Berastegiko Udaleko ordezkariak: “Kopuru horretan bilketa ere sartzen da edo etxolaren kostua bakarrik?”

Teknikariak: “Etxolaren kostua bakarrik. Bilketa, egungo kontratuan dago sartuta.”

Hala, kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea proposatzen da, prozedura martxan jartzeko. Era berean proposatzen da prozedura honetan hemendik aurrera hartu beharreko erabakietarako Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea.

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitaterako etxeko hondakin arriskutsuen Birziklapen Etxolen 3 unitate hornitzeko kontratua eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez, arautu behar duten espedientea eta Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- 2017ko ekitaldiko Mankomunitateko Aurrekontuaren kargura, gastu-orriaren 1 625.01.162.10 kontu-sailaren gain, adierazitako kontratazioa gauzatzeko gastua baimentzea, 53.996,25 euro (%21eko BEZ barne).

HIRUGARRENA.- Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Pleguak jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera.

LAUGARRENA.- Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea, etxeko hondakin arriskutsuen birziklapen etxolen 3 unitate hornitzeko kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

18:50etan Irurako Udaleko ordezkaria bertaratu da.

4. Galde-erreguak

Mankomunitateko Kontuhartzaileak hartu du hitza, gai-zerrendan barneratu ez den gai bat azaltzeko.

4.1 2016 Ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorren berri ematea.

Mankomunitateko Kontuhartzaileak honela azaldu du hitzez hitz: “2016ko likidazioa dekretuz onartu zen, 2017ko martxoaren 9an eta, bertan, diruzaintza gerakina, behin txertaketak egin ondoren, 1.918.373,00 eurokoa izan zen eta aurrekontuko emaitza 315.939,77 eurokoa. Ondoren, behin likidazioa onartuta, kontu Orokorrak osatzen dira.

Kontu Orokorrak Batzarrak onartzen ditu, baina lehendabizi Batzordetik pasatzen ditugu. Momentu honetan, Kontu Orokorren espedientean dokumentu bat falta da egiteko. Kontu Orokorrak sei dokumentu ditu eta bost osatuta daude, baina bat, Memoria, oraindik ezin da egin, Foru Aldundiak ez daukalako oraindik programa prest. Hori osatu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira eta hamabost egunez jendaurrean ikusgai egoten dira, iragarkia argitara eman ondoko egunetik aurrera. Behin epe hori igarota, erreklamaziorik ez badago, egiten den hurrengo Batzarraren esku geratuko da Kontu Orokorren behin betiko onespena.”

Hala bada, Batzorde Iraunkorrek ez dio inolako eragozpenik jarri eta oniritzia eman dio 2016eko Kontu Orokorren espedienteari eta jakinaren gainean geratu da.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan (18:55), Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, gutzia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA